

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Pakete bat bere helmugara, bezero batengana iristeko, paketea lurpeko hodien bidez bidaltzen dugu, eta horrela, edozein modutan baino azkarrago iritsiko dira. Hasiera batean, telebistan eta irratan emitituko den iragarki bat sortuko dugu, eta paketeak Correoseko establezimenduen bidez edota kalean jarriko ditugun makinen bidez jasoko ditugu, gero guk behar den tokira eramateko. Pakete bat bidali nahi duten bezeroak hainbat lekutan dauden Correos-en dendetara joango dira, eta hartzailearen kokapenari buruzko informazioa emango digute. Paketea ia berehala bidaliko da. Bestalde, gure bezeroen poztasun maila zein den jakiteko, web orri bat sortuko dugu. Orri horretan, eskaera bakoitzaren ondoren, bezeroek aukera izango dute beren iritzia modu anonimoan emateko eta 1etik 5era bitarteko inkesta batean bozkatzeko. Horrela,¹ ez dagoela batere pozik eta 5 da poztasun maila perfektua. Webgune honetan sartzeko, QR kode bat itsatsiko dugu bidaltzen dizkiguten paketeetan, bezeroei web horretan sartzen laguntzeko.